

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2024ko apirilaren 25a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:00

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Makazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren bilkura hauen zirriborroak: 2024ko urtarrilaren 25eko eta otsailaren 29ko ohiko bilkuretakoak eta 2024ko martxoaren 11ko eta 21eko ezohiko bilkuretakoak.
- 2.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketari.

- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko aparkalekuak arautzen dituen udal-ordenantzaren aldaketari.
- 4.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN BILKURA HAUETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK: 2024KO URTARRILAREN 25EKO ETA OTSAILAREN 29KO OHIKO BILKURETAKOAK ETA 2024KO MARTXOAREN 11KO ETA 21EKO EZOHIKO BILKURETAKOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork zirriborroen edukiari buruzko inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren bilkura hauetako akten zirriborroak: 2024ko urtarrilaren 25eko eta otsailaren 29ko ohiko bilkuretakoak eta 2024ko martxoaren 11ko eta 21eko ezohiko bilkuretakoak.

2.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2024ko apirilaren 19ko Barne-antolaketa batzordean diktaminatu da, era honetara:

*1.- Diktaminatzen da tarifak **ALDATU ETA EGOKITZEA** trakzio mekanikoko ibilgailuak herriko kaleetan aparkatzeko, horretarako zehaztutako eremuetan eta ezar daitezkeen mugekin. Bi tarifa hauek bereiziko dira:*

- **1 TARIFA:** Ohiko ibilgailuak.
- **2 TARIFA:** Jarduera ekonomikoei atxikitako ibilgailuak.

*2.- Diktaminatzen da **ALDATU ETA EGOKITZEA** Orioko udal-hilerriko zerbitzu eta kontzesioen tarifak, egin den kontratazio publiko berria ikusita eta zerbitzu horiek orain ematen dituen enpresa adjudikaziodun berriaren prezioak kontuan hartuta.*

*3.- Diktaminatzen da Orioko Udal Musika Eskolako musika-irakaskuntzaren tarifak % 3 inguru **HANDITZEA**.*

*4.- Diktaminatzen da **ALDATU ETA EGOKITZEA** Txu-txu trenari dagozkion tarifak. Aipatzekoa da denboraldiko bi bonu ezarriko direla: bata, 2024ko maiatzaren*

21etik ekainaren 23ra artekoa, 10 euroko prezioan; eta bestea, ekainaren 24tik udako denboraldiaren bukaera arte, 20 euroko prezioan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko apirilaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketari, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminoetan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Udaletxeko idazkaritza.

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita; betiere, bulego-orduetan.

c) Erreklamazioak aurkezteke aukera dutenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteke lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3. LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO APARKALEKUAK ARAUTZEN DITUEN UDAL-ORDENANTZAREN ALDAKETARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko apirilaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko aparkalekuak arautzen dituen udal-ordenantzaren aldaketari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA udal-ordenantzaren aldaketa hori, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko, 30 laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

Udal-ordenantzaren aldaketa hori interesatuen eskura egongo da udal-idazkaritzan, lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal-ordenantzaren aldaketa, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Inaxio Alguacil zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du azalpen batzuk eman nahi dituela gai-zerrendako bigarren eta hirugarren puntuei dagokienez:

- Ordenantza fiskalen eta beren eranskinen azken aldaketa 2023ko iraileko udalbatzarrean onartu zen eta indarrean dago 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera. Orduan onartzeke geratu ziren Orioko Musika Eskola Publikoaren 2024-2025 ikasturteko musika-irakaskuntzaren tarifak, eta tarifa horiei lehen onarpena eman zaie udalbatzar honetan, batez beste %3 handituz. Inaxio Alguacil zinegotziak adierazten du aldaketa horren arrazoia hau izan dela: Orioko Musika Eskola Publikoaren finantzaketa partekatua lortu behar dela; alegia, Eusko Jaurlaritzak gastuen herena ordaintzea, Orioko Udalak beste heren bat, eta Musika Eskolaren erabiltzaileek, berriz, azken herena.
- Orioko Udal Hilerriko zerbitzu eta kontzesioen tarifak aldatu eta garestitzearen arrazoia hau izan da: zerbitzu eta kontzesio horiek enpresa adjudikaziodun berriak ematen ditu orain, eta hark eskainitako prezioetara egokitu behar dira tarifak, kontuan hartuta, gainera, tarifa horiek aspaldidanik egokitu gabe zeudela.
- Txu-txu trenaren erabilerari dagozkion tarifa berriak direla-eta, azken urteotako esperientziak erakutsi digu zerbitzuak badituela hutsune batzuk eta hobekuntzak egin behar direla segurtasunaren alorrean, bidaien maiztasunean eta abar. Hori dela-eta, 2024ko udako denboraldian, tren turistikoa berri bat erabiliko da, irisgarriagoa eta segurtasun publikoko baldintzak hobeto betetzen dituena. Aipatzekoa da denboraldiko bi bonu ezarriko direla aurten: bata, maiatzaren 21etik ekainaren 23ra artekoa, 10 euroko prezioan; eta bestea, ekainaren 24tik udako denboraldiaren bukaera arte, 20 euroko prezioan. Nolanahi ere, 2024ko udako denboraldiaren ondoren, balorazioa egingo da berriz, gaian inplikaturako eragileekin.
- Azkenik, Orioko aparkalekuak arautzen dituen udal-ordenantzaren aldaketari dagokionez, Inaxio Alguacil zinegotziak adierazten du onartu diren aldaketak Udalak herriko merkatariekin egindako bilera irekien fruitu izan direla. Aldaketa nagusiak hauek dira:

- Jarduera ekonomikoei atxikitako ibilgailuek aukera izango dute bertakoen eremuan aparkatzeko, dagokion tarifa ordainuz TAOn aplikazioaren bidez. Bertakoen eremua, bestalde, handitu egin da eta orain kale hauek ere hartzen ditu: Ibai Ondo pasealekua, Balea kalea, Palota kalea eta Erribera kalea.
- Egonaldi luzeko aparkalekuetan, denboraldi ertainaren eta behe-denboraldiaren epeak zehaztu dira: denboraldi ertaina epe hauetan izango da: martxoaren 15etik maiatzaren 31ra eta irailaren 14tik azaroaren 1era, biak barne. Behe-denboraldia, berriz, epe honetan izango da: azaroaren 2tik martxoaren 14ra, biak barne.
- Bi tarifa-mota ezarri dira:
 - **1. TARIFA:** Ohikoa.
 - **2. TARIFA:** Berezia, jarduera ekonomikoei atxikitako ibilgailuentzat.
- Arau-hauste arinak gehitu egin dira, eta berri hauek sartu dira:
 - Ezarritako aparkatze-denbora gainditzea.
 - Egonaldi laburreko edo errotazio handiko eremuetan, berriz aparkatzea eremu berean, aparkaldiaren gehieneko aldia amaitutakoan.
 - Okerreko tarifa aukeratzea.
 - Bertakoen eremuan aparkatzea, horretarako baimenik izan gabe.
- Ordenantzaren 12. artikulua erredakzioa aldatu da, zigorrak eta arauak egokituz.

4.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkateak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,